

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

5629

IRAGARKIA, 2024ko azaroaren 21ekoa, Industria Administrazioako Gipuzkoako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez argitara ematen baita Irungo (Gipuzkoa) udalerriko «FF1 Bidasoa BESS» izeneko aurreproiektua.

Energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan (2020-04-24ko EHAA) eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan (2013-12-27ko BOE) aurreikusitako ondorioetarako, jendaurrean jartzen da aldez aurreko administrazio-baimena eskatzen den instalazio elektrikoa:

Espedientea: 20-GE-Y-2024-00014.

- Eskatzailea: Ffnev Bess, S.L.
- Kokalekua: Irun (Gipuzkoa) udalerria.
- Aurrekontu osoa: 18.586.758,16 euro.
- Xedea: bateriak dituen energia biltegitatzeko sistema bat instalatzea, 30 kV-ko sareari konektatua.
- Instalazioaren ezaugarriak: proiektuan jasotakoak. Proiektua Manuel Gómez-Serranillos de la Cuesta industria-ingeniariak sinatu zuen, 2024ko azaroan, eta espedientean jasota dago.
- Eskeraren xedea: aurretiazko administrazio-baimena.

Horren berri ematen da guztiek jakin dezaten, eta dokumentazioa aztertzeko aukera izan dezaten Industria Administrazioako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo 10, 1. solairua, Donostia / San Sebastián), dagokion udaletxean edo webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>.

Egoki iritzitako alegazioak bi aletan aurkeztu beharko dira Industria Administrazioako Lurralde Ordezkaritza honetan, gehienez ere 20 eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia / San Sebastián, 2024ko azaroaren 21a.

Industria Administrazioako Gipuzkoako lurralde-ordezkaria,
AGUSTIN AROSTEGI ARTETXE.